



I.E.S. PIO BAROJA BHI

IRUN

**TUTORETZA ETA ORIENTAZIO PLANA**

**2022-2023 IKASTURTEA**

**IES PIO BAROJA BHI**

ORIENTAZIO MINTEGIA

1. **SARRERA**
2. **ORIENTAZIO MINTEGIAREN FUNTZIOAK**
  - Tutorearen funtzioak
  - Orientatzailearen funtzioak
  - Orientazio Mintegiaren funtzioak
3. **HELBURUAK**
4. **KONPETENTZIAK**
5. **TUTORETZA PLANA**
  - Ikaslearekiko
  - Irakaslearekiko
  - Familiekiko
6. **KOORDINAKETA ETA FORMAKUNTZA JARDUERAK**
7. **EBALUAZIOA**
8. **LAN EGITARAUA EBALUAZIOKA**

## 1. SARRERA

Txosten hau gure ikastetxean 2022-2023 ikasturtean aurrera eramango den orientazio eta tutoretza lanaren gida eta erreferentzia izango da. Plan honek aurreko ikasturteko memoriarekin erlazio zuzena du, bertan oinarritua dago eta aurreko ikasturteetan egindako lanari jarraipena ematen dio.

Gure ikastetxeko ikasle, guraso eta irakasleei zuzenduta dauden ekimen eta jarduerak biltzen ditu.

Ikasleen beharrei ahalik eta hobekien erantzun behar diegu, batxillergoko erronkari aurre egin ahal dezaten. Beraz, Hezkuntza-komunitate osoak alderdi akademikoari zein emozionalari arreta jarri behar diegu aktiboa izanez.

### IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, tutoretza plana kontestualizatzeko asmoarekin, gure ikastetxearen ezaugarriak adieraziko ditugu.

Pio Baroja Institutuak funtsean Irungo ikasleei erantzuten badie ere, bere eskaintza zabala (Arte, Zientzia eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Batxilergoak) dela eta, gero eta gehiago dira inguruko herrietatik bertara etortzen diren ikasleak: Hondarribiatik, Bortzirietatik, Oiartzundik eta Iparraldetik.

Irungo Ikastetxe publiko bakarra da eta ikastetxe jatorri ezberdinetako ikasleria elkartzen da eta ondorioz 1. mailako ikasleek ez dute elkar ezagutzen. Batxigergoko ikasketak bakarrik burutzen direla bertan. 13 ikastalde maila bakoitzean, 700 ikasletik gora.

Bidasoaldeak eta zehazki Irunek ezaugarri jakin batzuk ditu, hala nola:

- Mugako herria izateak bertako jarduera ekonomikoetan eta horietarako beharrezko diren ikasketetan eragin zuzena izan du.
- Turismorako edo behinik behin, barnealdeko jendearentzako erakargarri suertatu izan da bailara hau. Esan beharra dago, azken urte hauetan etorkin kopuru igoera nabarmena sumatu dela.
- Tradizioz zerbitzuetako sektorea da nabarmena (populazio aktiboaren %74,30).

- Lehen sektoreari dagokionez, arrantzari esker “zerbait” bada ere, ez du inolako eraginik, erabat minoritario bait da.

## 2. ORIENTAZIO MINTEGIAREN FUNTZIOAK

Nire jarduna Orientazio kontzeptu honetatik abiatuko da: ***“Irakasleek tutorearen ardurapean eta orientatzaileak koordinaturik, ikasleei laguntzeko eta bakoitzaren garapen integrala ahalik eta altuena lortzeko ahalbidetuko duen prozesu jarrai eta sistematikoa da.”***

Orientazio kontzeptu horrek hiru esparrutan lan egitea dakar: garapen pertsonala, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eta bokaziozko orientazioa.

Orientazio mintegiaren zereginak zehaztu baino lehen, tutore eta orientatzailearen betebeharrak bereiztuko ditut.

### **Tutorearen funtzioak:**

- a. Tutoretza-plana prestatzea, ikastetxeko orientatzaileak aholkatuta eta lagunduta.
- b. Ikasle taldeko irakasle taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokienez, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan sortzen diren egoera banakako eta orokorren azterketari dagokionez. Ebaluazio-saioez gain, tutoreek ikasturtean hiru bilera egin behar dituzte gutxienez taldeko irakasleekin.
- c. Irakasleekin taldeko tutoretza-lana eta banakakoa egitea, ikastetxeko eta eskualdeko orientazio-zerbitzuek lagunduta beharrezkoa bada.
- d. Irakasle eta orientatzaile taldeak aholkatuta, orientazio-aholkuak idaztea ikasleek amaitzean edo egoera bereziak gertatzen direnean
- e. Eskolako jardueri buruzko informazioa ematea ikasleei eta haien gurasoei. Edonola ere, gurasoek eskubidea dute irakasleengana eta ikastetxeko aginte-organoetara jotzeko.
- f. Taldeko ikasleen gurasoekin edo/edo legezko tutoreekin harreman arinak izatea hezkuntzako lana errazteko, alde biei dagokien.

- g. Ebaluazio-saioak koordinatzea eta emaitzak ematea.
- h. Talde edo gelako ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea eta haien berri ematea ikastetxeko ikasketa-buruari eta familiei.

### **Orientatzailearen funtzioak:**

- a. Orientazio Saileko buru izatea, alegia, Orientazio Sailaren bilerak planifikatzea eta gidatzea eta Saileko kide bakoitzaren lanak koordinatzea.
- b. Orientazio Plana prestatzea eta ikastetxearen tutoretza-plana prestatzeko aholkuak ematea tutoreei, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, eta Orientazio Plana Sailaren urteko planaren eta urteko txostenaren barruan sartzea.
- c. Ikastetxeko ikasleei lanbide-orientazioa emateko programa bat prestatzea etapa guztietarako eta hura garatzen laguntzea.
- d. Ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordearekin (batez ere, ikasketa-bururekin) elkarlanean jardutea eta jarduketa-planak eta proposamenak aurkeztea sail didaktikoak eta irakasle taldeak koordinatzeko.
- e. Tutorearekin eta taldeko irakasleekin batera ikasleek ikasteko zailtasunak dituzten egoerak aztertzea eta hezkuntza indartzeko eta, hala badagokio, curriculum a egokitzeko neurriei buruz aholkatzea.
- f. Ikastetxean jokabide- eta elkarbizitza-arazoak sortzeari aurrea hartzen eta horrelakoak konpontzen laguntzea
- g. Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea berriazko arreta emateko plan eta programak (curriculum anitzeko gelak, zereginak ikasteko gelak, hezkuntza berriaz sendotzeko proiektuak) diseinatzeko, egiteko eta ebaluatzeko eta haien jarraipena egitea.
- h. Maila bakoitzeko tutoreekin koordinatzeko bilerak egitea aldizka, taldeko tutoretza-planaren bilakaera eta ebaluazioari buruz aholkatzeko, eta, oso bereziki, ikasleak orientatzeko programatutako jardueri buruz.
- i. Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleen jarraipen egokia

egiteko, ikasleak integratzeko eta ikasleek ikasketetan arrakasta izatea bermatzeko.

- j. Etorrin ikasleentzat Harrera Planaren garapena eta jarraipena

### **Orientazio Mintegiaren funtzioak:**

Orientazio mintegiak funtsezko bi zeregin ditu: batetik, irakasleekin batera parte hartzea, animatzea, aholkatzea eta lan egitea ikastetxean hezkuntzan esku hartzeari buruz erabakitzeko foroetan, hala nola zuzendaritza-taldeetan, batzorde pedagogikoetan, sail didaktikoetan, irakasle taldeetan eta tutore taldeetan; eta, bestetik, proiektuak, ikasle guztientzako ebaluazio-diseinuak eta esku hartzeko irizpideak sortzen laguntzea eta ikasleen hezkuntza- eta orientazio-zereginetan laguntzea. Horrenbestez, Orientazio Planak guztiak aipatu behar ditu.

- a. Zentroaren koordinatzeko batzordeetan parte hartu.
- b. Curriculum anitzeko taldeez eta hezkuntza berariaz sendotzeko proiektuez arduratzen diren irakasleekin landu.
- c. “Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoko” ekintza-ildo guztiak heltzeko ahaleaginean aritu.
- d. Hezkuntza indartzeko planak bultzatu.
- e. Kultu-artearen dinamizatzaileria izatea.
- f. Elkarbizitzarekiko arazoak ez sortzeko planetan parte hartu baita sortuz gero bideratzeko ere.
- g. Elkarbizitza batzordean parte hartzea.
- h. Tutoretza eta Orientazio Planaren lorpena ebaluatzea, bereziki ikasleriarekiko programatuta daudenak.
- i. Institututik kanpoko erakundeekin landu gure ikasleria ondo gizarteratzea

### **3. HELBURUAK**

- o Ikasleari ikastetxean eta ikaskideen taldean ongi integratzen laguntzea,

eta oro har ikastetxearen dinamikan.

- Ikasleen prozesuaren jarraipena bultzatzea, bai banaka bai talde mailan.
- Taldean eta taldea eta tutorearen arteko harremanak eta elkarrizketak

suspertzea.

- Gai hauen inguruan erabakiak hartzen laguntzea: lanbide irteerak, hautazko irakasgaiak eta ibilbide kurrikularrak, beti ere ikasleen auto-orientazioa sustatuz.
- Ikaslearengan trebetasunak, abileziak eta baloreak sustatzea, ondoren gizarte eta lan integrazio egokia ahalbidetuko dizkietenak, norberaren auto-balorazioa alde batera utzi gabe.

#### **4. KONPETENTZIAK**

Pertsona guztiek beren burua errealizatzeko eta garatzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta lan egiteko behar dituztenak dira oinarrizko konpetentziak.

Oinarrizko konpetentzia horiek izan daitezke zeharkakoak edo diziplina barrukoak.

Arlo guztietan lantzen diren oinarrizko zehar-konpetentziak:

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko gaitasuna
- Ikasten eta pentsatzen ikasi
- Elkarbizitza
- Ekimenerako eta ekiteko konpetentzia, ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna
- Izaten ikasi

Konpetentzietan oinarritutako pedagogiaren ezaugarriak:

- Arazo-egoerak konpontzea, eskura dauden baliabideak modu integratuan erabiliz.
- Eskolaren xede nagusia ez da informazioak eta ezagutzak transmititzea, oinarrizko konpetentziak garatzea baizik.

- Adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak baliabideak dira, baina ezinbestekoak dira problema-egoerak konpontzeko.
- Oinarrizko konpetentziak garatu ahal izateko, egoera errealetako jarduerak proposatu behar dira, eguneroko bizitzako problema nagusiak jakintzarekin lotuz.
- Oinarrizko konpetentziak ganoraz ikasteko, ikasleak modu aktiboan inplikatu behar du jakintza bilatzen, ikasten, esperimentatzen, hausnartzen, aplikatzen eta komunikatzen.
- Gaitasunak garatzeko, irakaslea ikasleen ikaskuntzaren tutorea da, eta, horretarako, haien ikaskuntza-prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, estimulatu, lagundu, ebaluatu eta birbideratu behar ditu.

## 5. TUTORETZA PLANA ETA ORIENTAZIO PLANA

Tutoretza Plana eta Orientazio Plana etapa/ziklo bat garatzeko finkatzen diren tutoretzarako ekintza programen multzoa, bere arduradunak, koordinatzeko moduak, etab. zehazten dituen proposamena dela esan daiteke.

Tutoretza lana ikasle bakoitzaren zirkunstantzia eta egoera kontuan izanik, bere garapena, heldutasuna, orientazioa eta ikaskuntza erraztu nahi duen irakasle-funtzioaren atala da.

Lan hau hiru talde hauekin burutuko da: ikasleak, irakasleak eta gurasoak.

### **Ikasleak:**

Tutoretza saioetan lana 4 esparruetan planteatuko da:

- **Orientazio Profesionala:** auto-ezagutza, informazioaren bilaketa, erabakiak hartzeko prozesua.
- **Orientazio Akademikoa:** aholkuak ikasketa-ohitura eta planifikazioari dagokienez.
- **Orientazio Pertsonala:** auto-estima, trebetasun sozialak, antolamendua eta parte-hartzea ikasgelan.
- **Tailerrak:** menpekotasunaren Prebentzioa, Hezkuntza Afektibo-Sexuala, Kultur-arteko Hezkuntza eta Elkarbizitza.



## **Irakasleak:**

Tutorea, banakako eta taldearen jarraipena egin ahal izateko, irakasle-taldearekin koordinatuko da.

Bai ikasle heldu berriei, baita errefortzua behar duten ikasleei jarraipena egingo zaie.

Tutoretza Plana burutzeko, ikasleen jarraipena egiteko eta egindako eskaerak eta iradokizunak jasotzeko, tutoreak orientatzailearekin programazioaren arabera bilduko dira, mailen arabera.

Orientatzailea zuzendaritza-taldearekin astero bilduko da, beharrezkoak diren jardueretan lankidetzan aritzeko, koordinatzeko eta informazioa elkar trukatzeko.

Orientatzailea Ikastetxeko Batzorde Pedagogikoan eta Elkarbizitza Batzordean ere parte hartuko du.

## **Gurasoak:**

Ikasturte hasieran, tutorea guraso taldearekin bilduko da, elkar ezagutu eta harremanak errazte arren eta ikasturtearen antolamendu eta funtzionamenduei buruzko xehetasun praktikoak emateko.

Ikasturtean zehar, tutoreek gurasoei banakako arreta emateko denbora jakin bat erabiliko dute.

Orientatzaileak, eskaera aldeztu aurretik eginda, gurasoei arreta emango die tutorearekin batera. Komenigarria izango litzateke ikasle interesatua ere bileretara joatea.

Batxilergoaren ondorengo ikasketetan aldaketa berri batzuk agertzen ari direnez, komenigarria izango da gurasoei hitzaldi bat ematea aldaketa berriak azaltzeko eta haien zalantzak eta kezak argitzeko.

## 6. KOORDINAKETA ETA FORMAKUNTZA JARDUERAK

- Tutoreekin hamabostero, antolakuntzaren arabera bilerak mailaren arabera.
- Zuzendaritza-taldearekin asteroko bilerak.
- Berritzeguneak antolatutako mintegia, Oarsoaldeko eta Bidasoako orientatzaileentzat. Bilerak hileroko burutuko dira eta orientazio zereginekin erlazionatutako aspektuak landuko dira.
- Beharren arabera bilerak kanpoko eragilerekin (Ongizate Zerbitzuak, Udala, Unibertsitateak, etab.).
- Prestakuntza ikastaroak.

## 7. EBALUAZIOA

Ebaluazioa jarraitua da eta ikasturte bukaeran memoria egingo da.. Honako balorazioa tutoretza saioen asteko programazioan jasoko da, baita azken balorazioan eta ikasturte bukaerako memorian ere

## 8. LAN EGITARAUA EBALUAZIOKA

### 1. BATXILERGOA: egitaraua ebaluazioka

|               |   |
|---------------|---|
| 1. EBALUAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Talde dinamikak</li> <li>● Gelako ordezkariaren hautaketa</li> <li>● Batxilergoko hasieraren galdetegia.</li> <li>● Pio Barojako Orientazio zerbitzuaren aurkezpena bai gurasoei bai ikasleei</li> <li>● Elkarbizitza</li> <li>● Ikasleekin banakako elkarrizketak</li> <li>● Ikasteko teknikak</li> <li>● MENPEKOTASUNAREN PREBENTZIO tailerra.</li> <li>● Sexu eta generoaren aniztasun formakuntza klaustroarentzat.</li> <li>● Suizidioaren arrisku eta babes faktoreei buruzko formakuntza klaustroarentzat.</li> </ul> |
| 2. EBALUAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> <li>● EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea): Jarduera Praktikoetan izen-ematea</li> <li>● Zaletasunei buruzko galde-sorta.</li> <li>● Pio Barojako Orientazio zerbitzuan: informazioa bilatzea</li> <li>● HEZIKETA AFEKTIBO SEXUALA tailerra</li> <li>● Elkarbizitza: ikastetxeak proposatutako jardueretan parte hartzea (Azar. 25, Martxaok 8, Mintza Kafea, ...)</li> <li>● Ikasleekin banakako elkarrizketak</li> </ul>  |
| 3. EBALUAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Batxilergoa amaitu ondoren zer? : aukera desberdinak</li> <li>● Unibertsitateari buruzko informazioa: Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa (USE)</li> <li>● 2. mailarako izena-ematea</li> <li>● Banakako elkarrizketak</li> <li>● Kurtso amaierako egutegia</li> </ul>   |

### 2. BATXILERGOA: egitaraua ebaluazioka

|               |   |
|---------------|---|
| 1. EBALUAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Gelako ordezkariaren hautaketa</li> <li>● Batxilergoaren ondorengo galdetegia</li> <li>● Pio Barojako Orientazio zerbitzuaren aurkezpena familiei eta gurasoei.</li> <li>● Ikasleekin banakako elkarrizketak</li> <li>● Euskal Herria eta Nafarroako unibertsitate publiko eta pribatuei buruzko informazioa/ hitzaldiak.</li> <li>● Ikasleekin ADIKZIOEN PREBENTZIOA zinearen bitartez.</li> <li>● Sexu eta generoaren aniztasun formakuntza klaustroarentzat.</li> <li>● Suizidioaren arrisku eta babes faktoreei buruzko formakuntza klaustroarentzat.</li> </ul> |
| 2. EBALUAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa (USE) azterketaren aurre-izena ematea</li> <li>● EHUko Orientazio jardunaldia</li> <li>● EHU: Orientaziorako Azokak eta Jardunaldi Irekiak</li> <li>● Elkarbizitza: ikastetxeak proposatutako jardueretan parte hartzea (Azar. 25, Martxaok 8, Mintza Kafea, ...)</li> <li>● EHUko hitzaldiak institutuan bertan</li> <li>● Ikasle ohien ibilbide akademiko etaprofesionalari buruz solasaldiak.</li> <li>● Beste unibertsitate batzuei buruzko informazioa</li> <li>● Ikasleekin banakako elkarrizketak</li> </ul>              |
| 3. EBALUAZIOA | <ul style="list-style-type: none"> <li>● USE: matrikula aldatzeko epea (maiatzean)</li> <li>● Ikasleekin banakako elkarrizketak</li> <li>● Lanbide heziketa: informazioa eta izena ematea (maiatza-ekainean)</li> <li>● Ondorengo ikasketetarako bekak.</li> <li>● EHU n sartzeko egin beharreko tramiteen egutegia: informazio hitzaldia</li> <li>● EHU: izena ematean egindako aukerak BERRESTEA, USE ren emaitzak jakin eta gero</li> <li>● Batxilergoko Sari Bereziak</li> </ul>  |